



Denbora gelditzerik balego...



Upeitegi bat baino gehiago ikusteko aukera izan zuten Lapuebla de Labarcara.

Ehunka pertsonak Uztaberri Egunaz gozatu zuten atzo, ardoaren mundu zabalarri probetxu ateratzeko asti gehiegirik izan ez zuten arren

III Jon Rejado

Azken urteetan ardoaren inguruan jakin-min handia sortu da. Asko dira edariaz gozatzear gain baruan ezkututzen dituen berezitasunak bereizten saiatzen direnak. Jatetxeek eta taberneak hartu ohi dituzte saiakera horiek, baina atzo Lapuebla de Labarcara gerturatu zirenak ardoaren etxean bertan inon baino hobeto dastatzeko dela frogatu zuten. Uztaberri Egunaren lehen aldia ehunka pertsona bildu ziren upeltegiak barrutik ezagutu eta bertako jabeen azagapenekin gozatzeko.

Goizeko hamaiketan hasi zen **Upeitegi Irukrak** izenarekin bataiatutako jaia. Oscar Terol, Arabako Errioxako ardoen enbaxadorearen makila eskuan zuela, izan zen hasiera emateko arduraduna, eta, nola ez, umorearen bidean murgildu zen lan horretan: «Ardoa liburu baten modukoa da; tabernariak liburu saltzaileak dira, upategiak liburutegiak... hori bai, ez irakurri gehiegi, badaezpada», esan zuen, besteak beste, barre algara artean.

Hamaika eta erdiak aldera jendea multzotan biltzen hasi zen udalaxearen aurrean eguneko lehen upeltegia ikusteko prest. Apurka-apurka multzo bakoitzak bere bidea hartu zuen sotolaria buru zutela. Guztira hogeita hiru upategiak hartu zuten parte atzokoan, bakoitzak bere berezitasunarekin. Eguna Luis Casado Upategian hasi zuen talde batek, ardoa egiteko

teknologia berriak erabiltzen dituen tokia. Bertan mahatsak ardoa bihurtu arte jarraitzen duen ibibide eta bilakaera osoa barrutik ikusteko aukera aparta izan zuten, baita zalanizak argitzeko ere.

Dena den, eta ardoa tartean dagoenean gertatu ohi den bezala, erlojuek behar baino bi-ziago egin zuten lan, eta, oharterako, azaldu-tako ardo-dastatzearen ordua heldua zen. Ardoaren ibibide osoa ikusi ondoren bertan egindako ardo ezin dastatuta, jaki gozoz betetako mahai batean hizketan antzeko denborarik gabe eta eskerrak arin emanda, ikastolarrako bidea hartu zuten hainbatek, korrika eta presaka.

Ikastolaren atarian, ehun pertsona hartzeko mahaiak zeuden prest, dastatzearen nondik norakoak azaltzen zituen txosten bat eta guzti. Mahaien aurrean hamaika botila zituen mahai bat zegoen, dastatuak izateko prest. Saioa gidatuko zuen pertsonak, Arabako Errioxako ardoen inguruko sarrera bat egin

Dastaketa
 Begiratu, usaindu,
 ahoan sartu, mantendu,
 berezitasunak
 sumatzeko ...